DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAREN ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMA ANTOLATU, KUDEATU ETA GARATZEKO XEDAPEN TEKNIKOEN AGIRIA

AURRERAKIAK

Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legeak neurri positiboak hartzea aurreikusten du, diskriminazio-egoerak desagertzen laguntzeko eta hezkuntzarako eskubidea benetan erabil dadila bermatzeko.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak 37. artikuluan zehazten ditu aniztasunari erantzuteko neurriak, eta 2. puntuan esaten du hezkuntza-beharrak dituzten ikasleen behar horiek landu behar dituztela ingurune normalizatu eta barne-hartzaile batean, eta edozein kasutan Oinarrizko Hezkuntzaren eta dagokien titulazioaren helburuak lortzeko bide eman behar dietela. 37.4 artikuluak zehazten du neurri horien artean Eskolatze Osagarriko Programak sartuko direla.

Bestalde, 236/2015 Dekretuak 41. artikuluan garatzen ditu Eskolatze Osagarriko Programak, eta ezartzen du programa horien hartzaileak heziketa-prozesuan berariazko laguntza behar duten ikasleak dira. Izan ere, ikasle horien laguntza-premiak ezaugarri pertsonal larrietan edo eskola-historian oinarritzen dira. Dena den, ikasleok programan sartu aurretik, agortuta egon behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak. 2. idatzi-zatiak adierazten du Eskolatze Osagarriko Programen helburua dela ikasle horiek heziketa-prozesuarekiko, ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizartearekiko jarrera baikorrak edukitzea, hartara arlo pertsonalean eta sozialean aurrera egin dezaten eta, programa amaitu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzeko prozesuari berrekin diezaioten.

Azkenik, Dekretuak 41.3 artikuluan ezartzen du Eskolatze Osagarriko Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten eta funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan egingo direla, edo, bestela, gizarte-heziketako erakundeetan (hitzarmen edo itun bat izenpetu badute Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin, berariazko deialdien bidez).

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muin bakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duenak, 23.3 artikuluan Hezkuntza Administrazioari eskumena ematen dio Eskolatze Osagarriko Programak ezartzeko egoera berezietarako erantzun gisa. Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duenak, 23.3 artikuluan Hezkuntza Administrazioari eskumena ematen dio Eskolatze Osagarriko Programak ezartzeko egoera berezietarako erantzun gisa.

Aurreko mandatuak garatzeko eta zehazteko, 2002ko maiatzaren 7ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agindua argitaratu da –Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko uztailaren 30eko Agindua aldatzen duena–, egoera txarragoan dauden ikasleentzat hezkuntzaren arloko hainbat ekintza arautzen dituena,

eta eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleentzat esku hartzeko neurriak ere bai. 1998ko uztailaren 30eko Aginduko V. kapituluan programa hauek arautzen dira:

Hori dela-eta, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. tituluan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan diru-laguntzak emateko moduari buruzkoa– ezarritakoaren arabera, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako oinarrizko araudia betez –zeinaren bidez onesten baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua–, eta oro har aplikatu behar diren gainerako xedapenekin bat etorriz,

Debagoieneko Mankomunitateak Eskolatze Osagarriko ikastaroak antolatu izan ditu azkeneko zortzi urteetan. Debagoieneko bigarren hezkuntzako zentroetan matrikulatuta dauden 14 eta 16 urte tarteko ikasleak baina eskolan ikasketak jarraitzeko arazo larriak dituztenak dira egitarau honetan parte hartzen dutenak.

Eskolatze Osagarriko Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten duten ikastetxe publikoetan egingo dira, edo, bestela, gizarteko edo hezkuntzako esku-hartzea egiten duten erakunde eta entitateetan. Azken erakunde eta entitate horiek programa osagarri horiei buruzko hitzarmen edo itun bat izenpetuko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, berariaz egingo diren deialdien bidez.

ZERTARAKOAK

Heziketa-prozesuan berariazko laguntzaren beharrean dauden ikasleentzat daude eginak Eskolatze Osagarriko Programak, eskolatze sozializazioa erraztuz, irakaskuntza lagatzeko arriskua eragotziz eta oinarrizko lanbide heziketako programetan parte hartzeko bidea irekiz.

PARTAIDEAK

14 urtez gorako eta 16 urtez beherako ikasleak, Eskolatze Osagarriko Programetan parte hartzeko gai direnak, 1998ko uztailaren 30eko Agindua aldatzen duen 2002ko maiatzaren 7ko Aginduaren 14.1 artikuluan zehaztutako baldintzetan. Agindu horrek hezkuntzaren arloko hainbat ekintza arautzen ditu gizarte edo kulturaren aldetik egoera txarrean dauden ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleentzat.

Eskolatze Osagarriko Programetako ikasleak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak proposatuko ditu, Pedagogi Berrikuntzako Lurralde-Burutzen bitartez.

IRAKASLEAK

1.- Prestakuntza-arloak emango dituzten irakasleek osatuko dute elkarrekin lan egingo duen prestatzaile taldea. Hona hemen talde horren osaera:

- Oinarrizko lanbide-teknikak irakatsiko dituen Lanbide Heziketako irakasle teknikoa, kasuan kasuko lanbidean aditua izan beharko duena. Irakasle horren ikasturteko gutxienezko arduraldikoa 1.150,- ordukoa izango da.

- Oinarrizko prestakuntza irakatsiko duen irakasle bat, unibertsitateko diplomatu edo lizentziatua. Komunikazio arloa eta, zientzia eta teknologia arloa. Irakasle horren ikasturteko gutxienezko arduraldikoa 300,- ordukoa izango da.

2.- Halaber, programan jarraipenarekin esku hartzen duten beste profesional batzuek ere (Psikologoak, Gizarte-hezitzaileak, Gizarte-laguntzaileak, Gorputz-hezkuntzako irakaslea) prestatzaile taldean parte hartu ahal izango dute.

Irakasleen kontratuak ikasleen ikasturteak baino bi aste gehiago iraungo du gutxienez.

Ikaslerik gabeko aldia (eskolarik gabeko garaia, beraz) ondoko lan hauek egiteko egokia den moduan antolatuko da:

a) Ikasturte-hasiera.

- Ikasleei egiteko elkarrizketak.
- Hasierako ebaluazioa.
- Ikasgelako curriculum-materialak eta programazioa egitea.

b) Ikasturte-amaiera.

- Ikasleen azken ebaluazioa.
- Ebaluazioa eta ikasturteko emaitzak.
- Azken txostena eta txosten ekonomikoa egitea.

HELBURUAK

1.– Gazteen heldutasun pertsonala laguntzea eta sendotzea, pertsona gisa garapen osoa lortzeko, gizarte kulturala eta demokratiko batek eskaintzen dituen aukerez baliatuz.

- Ikasleek gizartean eta lanean egoki moldatzeko beharrezkoak dituzten hainbat ohitura eta jarrera (puntualtasuna, garbitasuna, ordena, etab.) lortzea.
- Aisialdi edo denbora librearen erabilera positiboa eta ona egiteko prestatzea.

2.– Oinarrizko prestakuntzaren funtsezko gaitasunetan sakontzea, ikasleei ikaskuntza iraunkor baterako aukerak eskainiz, eta arreta berezia jarriz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari egotziriko mailen lorpenean.

- Ikasleak hainbat tresna eta makina erabiltzen trebatzea, baita hainbat material aplikatzen eta erabiltzen ere.
- Giza harremanak, talde-lana eta lana ongi egiteko ardura sustatzea.
- Erabakiak hartzeko metodoak lortzea eta behar hainbat heldutasun pertsonal lortzea, prestatu, profesionalizatu eta lan-merkatuan sartzeko bakoitzak bere ibilbidea egin dezan.

METODOLOGIA

Arreta pertsonalizatua eta edukien metodologia integratzaileak erabiltzea, horra hor zein izango den programa horietako irakaskuntza eta ikaskuntzako jarduerak garatzeko oinarria.

ZERBITZUAREN KUDEAKETA

Esleipendunak Programaren zuzendaria izendatuko du, Debagoieneko Mankomunitatearekin solaskide izango dena.

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziaren arduradunak programaren jarraipena egingo du ikuskatzaile-koordinatzaile lanak burutuz, horretarako izendaturiko programa-zuzendariarekin bilduko da aldizka, programaren garapenaren jarraipena egiteko.

Programaren zuzendaritzak programari buruzko dokumentazioa prestatuko du, eta Debagoieneko Mankomunitateari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari aurkeztuko die, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako arduradunarekin ere eztabaidatuz dokumentazio hori.

Esleipendunak izendaturiko irakasleak zuzenean parte hartuko du Debagoieneko Mankomunitatearen Lan Arriskuen Prebentziotarako bultzatutako egitarau eta ekintzak aplikatzen eta garatzen, une bakoitzean onartzen diren laneko segurtasun-arau eta neurriak bete eta betearaziz.

Esleipendunak hasierako eta bukaerako txostenak egingo ditu; hauetan programaren gorabeherak eta egitarauaren dokumentazio ofiziala eta Debagoieneko Mankomunitatearentzat interesgarri izan daitekeena bilduko du.

Esleipendunak ondorengo alde hauen kudeaketa egingo du:

a.- Debagoieneko Mankomunitateak edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskatzen dituzten txosten eta agiriak prestatzea.
b.- Programa gauzatzeko behar diren hornidura eta material suntsigarriak erostea.
c.- Ikasturtean zehar ikasleak istripuen aurka babestuko dituen aseguru-poliza kontratatzea eta ordaintzea.

ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Aurreko atal horien aplikaziotik datozen betebehar guztiez gain, esleipendunak beste obligazio hauek betetzeko ere konpromisoa hartzen du:

- Zerbitzua Agiri honetan eta Administrazio Baldintza Partikularren Agirian ezarritakoaren arabera ematea.

- Hezkuntza-programazioa gauzatzeko beharrezko materialen erosketak kudeatzea.

- Hezkuntza-prozesuaren ebaluazioa, eta programazioa zenbateraino aplikatu eta eman den zenbatu eta balioestea. Hezkuntza-fase bakoitzaren bukaeran ikasle bakoitzak lorturiko helburuen ebaluazioa.

- Proiektaturiko ekintzei buruz Debagoieneko Mankomunitateak eskatzen dituen azterlan, txosten, balantze edo bestelako dokumentuak egitea.

- Esleipendunak aurkezturiko hezkuntza-proiektuan zehaztutako eskolaz kanpoko ekintzak gauzatzea.

- Kontratistak egitarauaren hasieran eta bukaeran deskargu-txostena egingo du zerbitzuaren bilakaeraz.

- Ikasturtea bukatzean eta kontratuaren epea bukatzerakoan, kontratistak libre eta Mankomunitatearen esku utziko ditu berak erabili dituen lokala eta tresneria, jaso zituen egoera berean.

- Kontratuaren epea bukatzean, kontratistak azken txostena emango dio Debagoieneko Mankomunitateari, bertan zehaztuko dituelarik egindako ekintzak eta emandako zerbitzuaren ebaluazioa. Txosten honetan, besteak beste, ondorengo puntu hauek sartu behar dira:

    - Zerbitzuan parte hartu duten ikasle guztien fitxa osoa. Hasierako egoera eta bukaerako egoera, balorazio espezifikoa barne.
    - Izan diren baja edo programa-uzteak eta horien zergatikoak.
    - Zerbitzura esleitutako langileek izan dituzten egutegia eta ordutegia.
    - Gauzaturiko ekintzen ebaluazioa.
    - Interesgarritzat jotzen diren gai guztiak eta Debagoieneko Mankomunitateak eskatzen dizkionak.

- Eskolatze Osagarriko Programari buruz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak une bakoitzean ezartzen dituen arauak beteko dira.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAREN BETEBEHARRAK

Debagoieneko Mankomunitateak aurreko atal horien aplikaziotik sorturiko eginbeharrak betetzera konprometitzen da:

BERRIKUNTZA PEDAGOGIKORAKO ZUZENDARITZAREN GIDALERROAK

Esleipendunak konpromisoa hartzen du zorrotz betetzeko Eusko Jaurlaritzako Pedagogia Berriztatzeko Zuzendaritzak ikasleak programan sartzeko prozeduren aplikazioari buruz argitaratzen dituen jarraibideak eta programa behar bezala garatzeko ezartzen duen beste edozein.

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK EGINGO DUEN SEGIMENDUA

1.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egingo du programaren garapenaren segimendua eta programaren helburuen lortze-mailaren segimendua. Ondorio horietarako, programaren garapenaz arduratuko den esleipendunak eskatzen zaizkien datu eta dokumentazio guztiak emango dizkio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Langileen hizkuntza gaitasuna:

Administrazioarekin eta batez ere hirugarrenekin harremana duten neurrian, eta eman beharreko zerbitzuaren izaera kontuan izanik ,14 urtez gorako eta 16 urtez beherako ikasleak, kontratuari esleitutako lantaldeko pertsonek (Irakasleak, Psikologoak, Gizarte-hezitzaileak, Gizarte-laguntzaileak, Gorputz-hezkuntzako irakaslea) , euskarako C1 gaitasun maila beharko dute programa aurrera eramateko.

Era berean, zerbitzua kontratatu eta gero zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo, administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

EGINBIDEA.- Baldintza Teknikoen Agiru hau Mankomunitateko gobernu juntak onartu zuen 2021eko ekainaren 1ean egindako bilkuran.

Arrasaten, 2021eko ekainaren 3an.
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

MARIA BELEN CHINCHURRETA IPARRAGUIRRE
C=ES, O=DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA-MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA, OU=51, OU=IDAZKARIA, OU=Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido, OU=Entitate publikoen ziurtagiri - Certificado de entidad publica, OU=Condiciones de uso en www.izenpe.com i nola erabili jakiteko, dnQualifier=-dni 15359802B -cif P2000001D, CN=MARIA BELEN CHINCHURRETA IPARRAGUIRRE, G=MARIA BELEN, SN=CHINCHURRETA, SERIALNUMBER=15359802B
2021-06-03 14:25:51